

## Hastera doaz Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen lau unibertsitate master eta hiru aditu titulu

2014/09/12

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak zazpi graduondo jarriko ditu abian hurrengo asteotan. Horietatik lau, unibertsitate masterrak dira, beste hirurak, aldiz, aditu titulu propioak. Modalitate desberdinetakoak daude, *online* egitekoak, erdi presentzialak edo aurrez aurrekoak. **Ikastaro bakoitzaren hasiera data egunera arte, matrikula egiteko aukera egongo dago.**

Hauek dira 2014-2015 ikasturtean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. eskainiko dituen graduondoak:

### > **Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet)**

Ikasketak %100 *online* dira eta irailaren 29an hasiko da. Unibertsitate master hau bete-betean dago lotuta hezkuntza eta horren berrikuntzarekin. Oso master aproposa da hezkuntzan diharduten profesionalentzat eta berrikuntza proiektuak diseinatu eta kudeatzen dituztenentzat. Izan ere, master honetan prestatzen dira hezkuntza-proiektuak sortu eta kudeatuko dituzten profesionalak. Beti ere, gogoeta eginez hezkuntzaren ingurumarian dauden premiei eta aukerei buruz, sustatuta estrategia berriak eta esku hartze baliabideak eta emaitzak ebaluatuta.

Urte baten edo bitan egin daiteke Berrimet masterra eta ikerketarako zein lanbiderako ibilbideak eskaintzen ditu. Master hau euskaraz edo gazteleraz egin daiteke

- Info: [www.mondragon.edu/berrimet](http://www.mondragon.edu/berrimet)

### > **Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu)**

Masterra %100 *online* eskaintzen da eta irailaren 29an hasiko da.

Gaurkotasun handiko master hau, Berrimet bezala, hezkuntzarekin estu lotutako dago. Eskolak gero eta kulturantzagoak eta eleanitzagoak dira eta hezkuntza komunitateko eragileek egoera horiek ulertu eta kudeatzeko gai izan behar dute. Master honekin behar horiei erantzun nahi zaie, kulturantzatasunari eta eleaniztasunari modu integral batean erantzungo dioten profesionalak prestatuta.

Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra egin daiteke urte baten edo bitan eta, hala nahi izanez gero, ikaslea doktoretza bidean jar daiteke ikerketa ibilbidea aukeratuz. Bi hizkuntzetan eskaintzen da, euskaraz eta gazteleraz. Aurrekoan bezala, ikasleak Master Bukaerako Lana egin beharko dut unibertsitatearen tutorearen gertuko gidaripean.

- Info: [www.mondragon.edu/ekomu](http://www.mondragon.edu/ekomu)

### > **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM)**

Aurrez-aurreko unibertsitate master hau irailaren 29an hasiko da, arratsaldeko 16:00etan Eskoriatzako campusean egingo den aurkezpenarekin.

Master honek ikaslea irakasle moduan aritzeko prestatzen du eta zuzenduta dago diziplina guztietako unibertsitate-tituludunei. Ikastaro honetan eskaintzen da prestakuntza eta irakaskuntzaren ikuspegi integrala. Gainera, ikasleen garapen profesionalari begira, eta DBHko,



Laster hasiko dira 2014-2015 ikasturteko graduondoak.

Batxilergoko, Lanbide Heziketako edota Hizkuntzen irakasle izateko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen ari direla ziurtatzeko, ebaluazio jarraituaren bitartez, ikasleek irakasleen partetik segimendu pertsonalizatua izaten dute.

Bestalde, ikasleak kanpoko praktikak ikasturtean zehar egingo ditu, hiru multzotan banatuta: alde batetik, moduluen garapenarekin lotutako bi praktikaaldi, eta, bestetik, espezialitateko ikasgaien ikaste-irakaste prozesuen behaketan arreta jarritz.

- Info: [www.mondragon.edu/bhm](http://www.mondragon.edu/bhm)

### > **Gizarte ekonomia eta enpresa kooperatiboa unibertsitate masterra (MCOOP)**

Nazioarteko ikasleak eta ikerlariak kooperatibagintzara erakartzea helburu duen unibertsitate master hau ematen da Enpresagintza fakultatearekin batera. Horretarako, graduondoa eskaintzen da %100 *online* modalitatean. Gazteleraz eskaintzen da MCOOP masterra.

Tituluraren xede nagusia enpresa kooperatiboak eta oro har gizarte-ekonomiako enpresak kudeatzeko eta lideratzeko konpetentziak eta ezagutzak garatzea da. Horretarako kooperatibismoaren arlo ekonomikoa eta arlo soziala uztartzen ditu: estrategia eta zuzendaritza orokorra; kudeaketa ekonomiko-finantzariora, juridikoa, komertziala eta lanekoa; (barne) ekintzaitetasuna; lidergoa; parte-hartzearen, interkooperazioaren eta eraldaketa sozialaren sustapena. Masterra irailaren 29an hasiko da.

- Info: [www.mondragon.edu/mcoop](http://www.mondragon.edu/mcoop)

### > **Komunikazioa erakundeetan aditu titulua (Aditukom)**

Aditu titulua hau modu erdi-presentziala eskaintzen da, eta urriaren 2an hasiko da, Bilbao Berrikuntza Faktorian, Bilbon. Adituaren hirugarren edizio honetan ere, aurreko eskola astean behin izango dira, ostegunetan, 15:00etatik 19:00etara.

Adituaren asmoa da, batetik, komunikazio eraginkorra sustatzea erakundeetan eta, bestetik, ikaslea janztea komunikazio paradigma berrietan. Gainera, aurtengo edizioan berebiziko garrantzia emango zaio jendaurreko komunikazioari eta horietan euskarak izan behar duen tokiari.

Oso graduondoko praktikoa da, hala, ikasleak komunikazio arloko benetako premiei erantzungo dio egin behar duen Aditu Bukaera Lanean, beti ere, unibertsitatearen tutorearen gertuko laguntzarekin.

Ostegunetako eskolak euskaraz izango dira, baina, ikasleak erabakiko du zein hizkuntzatan egin bukaerako proiektua.

- Info: [www.mondragon.edu/aditukom](http://www.mondragon.edu/aditukom)

### > **Euskal Kulturgintzaren Transmisioan aditu titulua (EKT)**

XXI. mendeko galdegaiei begira, euskal kulturgintzaren transmisioa ipar duen formazio-eskaintza emango da urriaren 18an abian jarriko den aditu honetan. EKT izan nahi du, batetik, gune bat gure herriarentzat funtsezkoa den dimentsio horretarako jakintza-tresnak sortzeko eta, bestetik, bozgorailu ekinbideak hedatzen joateko. Urtero bezala, maila goreneko adituek eta arituek partekatuko dituzte euren esperientziak ikasleekin.

Aditu titulu honen bosgarren edizio hau zuzenduta dago unibertsitateko lizentziatu, diplomatu eta graduatu guztiei, oro har. Bereziki, euskal kulturgintzaren eremu zabalean lanean diharduten profesionalak edota eremu horretan jardun nahi dutenak.

Lanean dagoen profesionalen egutegira moldatzeko asmoarekin, aurreko aurreko saio teoriko-praktiko-ludikoak egingo dira hilean behin, asteburu batean, larunbatetan 09:00 hasi eta igandean 17:00an bukatuta. Eskolak guztiak emango dira Eskoriatzako campusean, eta behar izanez gero, inguruan lo egiteko aukera ere eskainiko da. Eskolak euskaraz izango dira.

- Info: [www.mondragon.edu/ekt](http://www.mondragon.edu/ekt)

### > **Kooperatibagintzan aditu titulua**

Aditu titulua dago zuzenduta, batez ere, kooperatibetako organo sozial eta exekutiboetako kideei, baina, oso interesgarria da proiektu

kooperatiboa bultzatzeko ahalmena eta sentsibiltatea duten  
personentzat edo bere burua kooperatibagintzan janzteko gogoia duten  
lagunentzat.

Ikastaroa hasiko da urriaren 10en, eta emango da Aretxabaletako  
Otalora jauregian, ostiraletan, 09:00etatik 14:30etara. Bi talde egiten  
dira, euskarazko taldea eta gaztelerazko taldea.

- Info: [Kooperatibagintza aditu titulua](#)